



Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia.

**Armagabetze azkar, bideragarri eta eraginkor baterako
prozedura-proposamena, ETAre gizartearen aurreko alde
bakarreko keinu batean oinarritua, gizartearen, nazioartearen
eta erakundearen babespean**



2014ko abenduaren 21a

Sarrera

Hiru urte baino gehiago dira ETAK indarkeria-estrategia behin betiko utziko zuela iragarri zuenetik. Orduz geroztik, euskal gizartea bakea behin betiko finkatzeko eta bizikidetzaren normalizatzeko prozesu bat bideratzen ari da. Aldaketa historiko hori sustatzeko eta garatzeko helburuarekin, Eusko Jaurlaritzak, 2013ko azaroaren 26an, Bake eta Bizikidetzaren Plana onartu zuen.

Sozialki, instituzionalki eta politikoki egindako aurrerapenak eta pausoak garrantzitsuak dira. Hala ere, oraindik ere prozesu hau erabat gauzatzeko eragozten duten blokeo-faktore batzuk daude eta horietako bat ETAREN desarmarearen ingurukoa da. Bake eta Bizikidetzaren Planaren zazpi helburuetatik lehenengoa, zehazki eta esplizituki, auzi horrekin lotuta dago: «ETAREN desarmarearen exijentzia eta haren benetako amaiera gauzatzeko laguntzea».

Legegintzaldiaren hasieratik, Eusko Jaurlaritzak jarrera zorrotza, aktiboa, malgua eta egonarritsua izan du arlo honetan. Gaur egungo egoeran armagabetzeko zailtasun operatiboak daudela onartu du, armagabetzearen ekarpen bat egiten ahalegintzen ari diren nazioarteko eragileekin elkarlanean aritu da, Espainiako Gobernuari laguntza eskatu dio eta bera ere laguntzeko prest agertu da, baita materialki laguntzeko ere.

Kontua da 38 hilabete igaro direla, denbora luzeegia, inolako emaitza efektiborik gabe. 2014ko urtarrilean aurkeztutakoa behar baino pauso txikiagoa izan zen, itxura guztien arabera. Aurrerapausorik ezak eta iragarritako konpromisoak –publikoki iragarritakoak barne– bete ez izanak frogatzen du ETA armagabetze-ezean eroso dagoela.

Hori ez da onargarria. Horren kostu sozial eta politiko handia euskal gizarteak ordaindu behar du, hipoteka bidegabe bat bailitza. Eusko Jaurlaritzaren ustez, ETARI dei zuzena egiteko garaia iritsi da. Ildo horretan, armagabetzeko prozedura azkar, bideragarri eta eraginkor baterako proposamen zehatz hau luzatzen dio:

1. Armagabetze-ezaren kostuak

Armagabetze-eza ez da kaltegabea. Errealitate politiko eta soziala ez da berdina armagabetzea burututa edo burutu gabe. Armagabetzerik ezak prezio oso altua dauka eta euskal gizarteak ez dauka zertan ordaindu. Ondorengo lau eragin zuzenak dakartza, gutxienez:

- Armagabetze-ezak iragana atzean uztea eragozten du. Iraganera lotzen gaituen eta indarkeriaren mehatxua gogorarazten digun elementu faktikoa eta sinbolikoa da.
- Armagabetze-eza, aitzakia gisa erabil badaiteke ere, azkenean alderdien artean edo Legebiltzarrean elkarriketa plural bat izateko oztopo erreal bat da.
- Armagabetze-ezak, aitzakia gisa erabil badaiteke ere, espetxe-politikan gauzak ez aldatzea bultzatzen du eta bai presoek bai haien familiei kalte egiten die.
- Armagabetze-ezak egoera zaharrak hiltzea eragozten du, eta berriak jaiotzea, eta neurri horretan, ezker abertzalea joko politikoan normalizatuta egotea blokeatzen du.

2. Armagabetzearen onurak

Alde bakarreko armagabetze ordenatu, egiaztatu, azkar eta eraginkor batek euskal gizartean, euskal politikagintzan eta bake- eta bizikidetzaren prozesuan eragin positiboak izango lituzke. Kontrapuntu gisa, aurreko atalean deskribatutako eraginaren aurkakoak aipatuko ditugu:

- Armagabetzea, sinbolikoki, etapa berri baten sorburua da. Gizarte honi iragana behin betiko atzean uztea ahalbidetuko lioke.
- Armagabetzeak gai estrategikoetan eta bizikidetzaren arloan elkarriketa politiko eta parlamentarioko dinamika berriak bultzatuko lituzke.
- Armagabetzeak espetxe-politika eta presoek eta beraien familien egoera aldatzen lagunduko luketen baldintzak sortuko lituzke.
- Armagabetzeak ezker abertzaleko sektore soziopolitikoari iraganeko zamaren zati handi bat kenduko lioke eta joko politikoan modu normalizatuan parte hartzea erraztuko lioke.



3. Armagabetzerik ezaren zergatia

Argudioak hain argiak izanik, ondorengo galdera saihestezina da: hiru urte baino gehiago igarota, zergatik ez da aurrerapausorik eman armagabetzean? Eusko Jaurlaritzaren ustez, elkar elikatzen duten hiru arrazoi daude: Espainiako Gobernuaren laguntza eza, Estatuaren laguntzarik gabeko armagabetze baten zailtasun operatiboa eta ETAk erabakia atzeratzeko interes taktikoa izatea.

4. Hiru armagabetze-eredu orain arte

Orain arte, modu gutxi-asko argian, ETA armagabetzeko hiru eszenatoki ikusi ditugu:

-Poliziaren konfiskazio bidezko armagabetzea. Zuzenbide-estatu batean, egoera hori ezin da eta ez litzateke baztertu behar. Eusko Jaurlaritzak alde bakarreko armagabetze ordenatu bat gertatzea nahiko luke, armak uzteko konpromisoaren betetzean oinarritutakoa. Dena den, armagabetzea atzeratuz, poliziak desarmatzeko arriskua erabat bere gain hartzen du ETAk.

-Espainiako Gobernuarekin adostutako armagabetzea. Gaur egungo errealitate politikoan, egoera hori onargarria bezain bideraezina da. Espainiako Gobernuak ez du onartzen. Eredu horren bideraezintasunari buruzko datua ez da berria. ETAk 2012tik du errealitate horren berri, eta hala ere, horrek ez du bere estrategian aldaketa esanguratsurik ekarri.

-Armak egiaztatzerik eta egutegirik gabe zigilatuz armagabetzea. Horixe da ETAk aukeratu duen eredia. Ondorio praktikoen eta politikoen ikuspegitik, ez armagabetzeko modu bat da. Armak egiaztatzerik eta egutegirik gabe zigilatzea ezer ez egitearen parekoa da. Egoera hori ez da onargarria.

4. Laugarren eredia: Eusko Jaurlaritzaren proposamena:

Euskal gizartearentzat eta politikarentzat funtsezkoa den auzi honetan blokeo-egoeran egonda, Eusko Jaurlaritzaren ustez, mahai gainean planteamendu argi bat jartzeko garaia iritsi da. Ondorengoa da bere «Armagabetze azkar, bideragarri eta eraginkor baterako prozedura-proposamena, ETAREN gizartearen aurreko alde bakarreko keinu batean oinarritua, gizartearen, nazioartean eta erakundearen babespean». Proposamen hau ETARENTZAKO DEI ZUZEN BAT DA eta bost urratsetan deskribatuta dago:

1. urratsa. ETAk euskal gizartearen aurrean armagabetzea onartuko du eta armagabetze-batzorde baten lan onaren bitartez bideratzea. Batzorde hori gizarte, nazioarteko eta erakundeetako eragilez osatuta egongo da.
2. urratsa. Jakinaraziko den epe zehatz baten barruan, ETAk bere arma eta lehergailu guztiak aurki daitezkeen eta gizartearentzat seguruak izango diren gordeleku batzuetan – gordeleku kopuru jakin batean – utziko ditu.
3. urratsa. Aldi berean, Armagabetze Batzorde bat eratuko da eta kideak honako hauek izango dira: Nazioarteko Egiaztatze Batzordearekin bildu izan zen Gizarte Foroko ordezkari bat, nazioarteko eragileen ordezkari bat eta Eusko Jaurlaritzako zenbait ordezkari. Eusko Legebiltzarrari batzordea babesteko eskatuko zaio.
4. urratsa. ETAk armen eta lehergailuen gordelekuen zerrenda Armagabetze Batzordeko kide den euskal gizarteko ordezkariari entregatuko dio.
5. urratsa. Gizarte-ordezkaritza horrek aipatutako informazioa Armagabetze Batzordeari emango dio eta horrek, era berean, Eusko Jaurlaritzari, legez dagokion moduan jardun dezan.

Eusko Jaurlaritzak ETARI proposamen hau onartzeko deia luzatzen dio, euskal gizartearen gehiengoaren borondatea delako. Armagabetze-eza ETA euskal gizarteari ordainarazten ari zaion hipoteka bat da. Armagabetzea ETAK euskal gizartearekin duen zor bat da. Eusko Jaurlaritzak gogoeta hauek eta proposamen hau Nazioarteko Egiaztatze Batzordeari helarazi dizkio gaur bertan.



Secretaría General para la Paz y la Convivencia.

Propuesta de procedimiento para un desarme rápido, viable y efectivo, basado en un gesto unilateral de ETA ante la sociedad vasca, y con cobertura social, internacional e institucional



21 de diciembre de 2014

Introducción

Hace más de tres años ETA anunció el cese definitivo de su estrategia de violencia. Desde entonces, la sociedad vasca viene encauzando un proceso de consolidación definitiva de la paz y la normalización de la convivencia. Con el objetivo de promover y desarrollar este cambio histórico el Gobierno Vasco aprobó el 26 de noviembre de 2013 el Plan de paz y Convivencia.

Son importantes los progresos y avances alcanzados tanto social, como institucional y políticamente. No obstante, siguen existiendo factores de bloqueo que impiden un pleno despliegue de ese proceso, uno de ellos es el relativo al desarme de ETA. El primero de los siete objetivos del Plan de Paz y Convivencia se refiere precisa y explícitamente a esta cuestión: "Contribuir a hacer realidad la exigencia de desarme y final efectivo de ETA".

Desde el principio de legislatura, el Gobierno Vasco ha adoptado una posición exigente, activa, flexible y paciente en esta materia. Ha reconocido las dificultades operativas de un desarme en las condiciones actuales, ha cooperado con los agentes internacionales que tratan de contribuir al desarme, ha pedido colaboración al Gobierno español y ha ofrecido su disposición a colaborar incluso materialmente.

Lo cierto es que han pasado 38 meses, demasiado tiempo sin ningún resultado efectivo. El presentado en enero de 2014 fue un paso a todas luces insuficiente. La ausencia de avances y el incumplimiento de compromisos anunciados, incluso públicamente, confirman que ETA se ha instalado en el no-desarme.

Esto no es aceptable. Tiene un alto coste social y político que ha de pagar la sociedad vasca en forma de injusta hipoteca. El Gobierno Vasco considera que ha llegado la hora de hacer un emplazamiento directo a ETA con una propuesta concreta para un procedimiento rápido, viable y efectivo de desarme.

1. Los costos del no desarme

El no-desarme no es inocuo. La realidad política y social vasca no es la misma con o sin desarme. El no-desarme tiene un precio muy alto que la sociedad vasca no tiene por qué pagar. Conlleva, al menos, los siguientes cuatro impactos directos:

- El no-desarme impide pasar página. Constituye un elemento fáctico y simbólico que nos ancla al pasado y recuerda la amenaza de violencia.
- El no-desarme, incluso aunque pueda utilizarse como pretexto, finalmente es obstáculo real que impide desplegar un diálogo plural entre partidos o en el parlamento.
- El no-desarme, incluso aunque pueda utilizarse como pretexto, finalmente favorece el inmovilismo en materia de política penitenciaria y perjudica a los presos y a sus familias.
- El no-desarme impide que lo viejo acabe de morir, lo nuevo termine de nacer, en esa medida bloquea la normalización de la izquierda abertzale en el juego político.

2. Los beneficios del desarme

Un desarme unilateral, ordenado, verificado, rápido y efectivo tendría efectos positivos en la sociedad vasca, en la política vasca y en el proceso de paz y convivencia. Se señalan como contrapunto los efectos opuestos a los descritos en el apartado anterior:

- El desarme constituye simbólicamente el momento fundante de una nueva etapa. Permitiría a esta sociedad pasar página de una forma definitiva.
- El desarme favorecería nuevas dinámicas de diálogo político y parlamentario en los temas estratégicos y en la convivencia.
- El desarme crearía condiciones favorables para un cambio en la política penitenciaria y en la situación de los presos y sus familias.
- El desarme liberaría al sector socio-político de la izquierda abertzale de una buena parte del lastre de su pasado y facilitaría su incorporación normalizada al juego político.



3. Por qué no se produce el desarme

Siendo tan claros los argumentos, la pregunta inevitable es ¿por qué después de más de tres años no se ha avanzado en el desarme? En opinión del Gobierno Vasco, confluyen tres razones que se retroalimentan: la no colaboración del Gobierno español, la complejidad operativa de un desarme sin colaboración del estado, y el interés táctico de ETA de posponer esta decisión.

4. Tres modelos de desarme hasta el momento

Hasta el momento, se han contemplado, de forma más o menos explícita, tres escenarios para el desarme de ETA:

·**El desarme por incautación policial.** En un estado de derecho este es un escenario que no puede ni debe descartarse. El Gobierno Vasco considera que es deseable un desarme ordenado y unilateral, basado en el cumplimiento del compromiso de abandono de las armas. No obstante, posponiendo su desarme, ETA asume el riesgo de un desarme policial bajo su entera responsabilidad.

·**El desarme acordado con el Gobierno español.** Este escenario es tan perfectamente aceptable como inviable en la realidad política actual. El Gobierno español no lo acepta. El dato sobre la inviabilidad de este modelo no es nuevo. ETA tiene constancia de esta realidad desde 2012, sin embargo, esto no ha provocado cambios significativos en su estrategia.

·**El desarme mediante sellado no verificado y sin calendario.** Este es el modelo actual por el que ha optado ETA. A efectos prácticos y políticos, se trata de una forma de no-desarme. Un sellado de armas sin verificación y sin calendario equivale a nada. No es un escenario aceptable.

4. Un cuarto modelo: la propuesta del Gobierno Vasco:

En este contexto de bloqueo en una materia tan sensible para la sociedad y para la política vasca, el Gobierno Vasco considera que ha llegado la hora de poner encima de la mesa un planteamiento claro. La siguiente es su *“Propuesta de procedimiento para un desarme rápido, viable y efectivo, basado en un gesto unilateral de ETA ante la sociedad vasca, y con cobertura social, internacional e institucional”*. Una propuesta que constituye un emplazamiento directo a ETA y que se describe en el desarrollo de cinco pasos:

Paso 1. ETA acepta materializar el desarme ante la sociedad vasca y canalizarlo mediante los buenos oficios de un comité para el desarme con una composición social, internacional, e institucional.

Paso 2. En un plazo de tiempo comunicado, ETA estructura el depósito de todas sus armas y explosivos en un número determinado de almacenamientos localizables y seguros para la población.

Paso 3. Paralelamente, se constituye un Comité para el Desarme compuesto por una representación del Foro social que ha venido reuniéndose con el Comité Internacional de Verificación, de los agentes internacionales y por representantes del Gobierno Vasco. Se solicitará el apoyo del Parlamento Vasco para este comité.

Paso 4. ETA hace entrega de la localización de sus almacenamientos de armas y explosivos a la representación de la sociedad vasca representada en el Comité para el Desarme.

Paso 5. Esta representación social entrega esta información al Comité para el Desarme que lo pone, a su vez, en manos del Gobierno Vasco para que éste actúe como legalmente proceda.

El Gobierno Vasco se dirige a ETA y le emplaza a asumir esta propuesta porque representa la voluntad mayoritaria de la sociedad vasca. El no-desarme es una hipoteca que ETA obliga a pagar a la sociedad vasca. El desarme es una deuda que ETA tiene contraída con la sociedad vasca. El Gobierno Vasco ha hecho llegar hoy mismo estas reflexiones y esta propuesta a al Comité Internacional de Verificación.